

TXOSTENA APYMA

2012ko otsaila

2010-2014

Plan Estrategikoa

1. Helburu estrategikoa

Pertsonen inplikazioa
areagotu (Hezitzaile eta
familiak) gure Ikastetxeak
duen heziketa Misioan.

“Benetako amodia da
besteari laguntzeko
dugun ezinbesteko
desioa,
bera den bezala izaten
jarrai dezan”

Jorge Bucay

“Ser hombres y
mujeres para y
con los demás”

Padre Arrupe

APYMA

GURASOEN ELKARTEA
SAN JOSE JESUITAK - DURANGO

E-mail :
apymasanjose@durangojesuitak.org

Batzar eguna: **Ostirala**
Ordutegia: **17:30-19:00**
Lekua: **Apyma batzargela**



ZER DA HAU?

Familia agurgarriak:

Familien eskolako bizitzaren partaidetza eta komunikazioa hobetzea helburu dugularik, zuekin jartzen gara harremanetan beste behin ere.

APYMAko Batzorde Nagusiaren aldetik, zuengana oraindik gehiago hurbidu nahi dugu, familiok baitzarete gure xede nagusia, eta gure elkartearen bidez edota gurekin elkarlana eginez ikasturtean zehar ikastetxean gauzatzen diren ekimenen berri eman nahi dizuegu. Horretarako, hiruhilabetero bidaliko zaizuen diptiko hau sortu egin dugu.

ZER DA APYMA?

Apyma ikastetxe honen ikasleen gurasoen elkarte da, eta guraso guztiok osatzen dugu.

APYMA

GURASOEN ELKARTEA
SAN JOSE JESUITAK - DURANGO

Helburu nagusia ikastetxeko giza-egituretan familien partaidetza bermatzea dugu; horren bidez, elkarbizitza sustatu nahi dugu ikastetxean eta ikastetxetik kanpo familien artean giro ona eta jatorra izateko; hau guztia, jakina, ikastetxeak duen hezkuntza-xedeen barruan.



EKINTZAK

Hona hemen 2011/12 ikasturtearen zehar jadanik egin diren ekintza eta egiteke daudenak; bertan, APYMAk eragin zuzena dauka gauzatuz, sustatuz edo diruaz lagunduz.

2011n BURUTUTAKO EKINTZAK		
2011/09	Ikasturtehasierako Gurasoen batzarra.	
2011/10	Alevín Villa de Durango III Senitarteko Topaketak Inaziar Astea Antzerkia Xabierko Frantzisko eta Txokolatada	Balorazio orokorra guztiz aldekoa izan da.
2011/11	Elkarbizitza Foroa Valentín Juaristi XVIII Txapelketa	Elkarbizitza Foroan parte hartuko duten familiei haien lana eskertu nahi diegu.
2011/12	Erabilitako Jolas eta Jostailuen Bilketa Gurasoen Eskolan izen-ematea Gabonetako Ume Jaia Gabonetako Ekaristia Gabonetako Txapelketa	Aipagarria da Juaristi Txapelketan familiek izan dute partaidetza eta eman duten laguntza.
2012/01	Senitarteko Topaketak Sare Sozialak - Internet (ATZERATUA)	Gabonetako Ekaristiak arrakasta handia izan du, gure ustez, oso egokia izan da eguna eta ordua aldatzea, horri esker jende gehiago joan da eta.

HURRENGO EKINTZAK 2012		
2012/02	Guraso Eskola (Apyma-k matrikularen %100 ordainduko du)	Bi talde osatu dira.
2012/02	Elkarbizitza Foroa Txixiburduntzi Apyma-ren Asanblada	Animatu zaitetzete! Ibilbide ederra, txorixo bikaina...
2012/03	Xabierada	Asanbladarako deia jaso duzue; ez ahaztu.
2012/03	Eskolako Jaiak, Familien Eguna*	Erne ibili Xabieradan parte hartzeko izena lehenbailehen ematen, lekurik gabe geratu ez zaitetzten.
2012/03	Senitarteko Topaketak; Solidaritate Astea	Jonan-Fernandez (Baketik) IZAN proposamenaren aurkezpena.

GURASO ESKOLA

Ikastaroak otsailean eta martxoan izango dira erabilera anitzeko gelan:

- ASTELEHENETAN 14,45etik 16,15era arte “**Komunikazio eta auto-estimua bitartez haurreentzako prebentzioa**”
- OSTEGUNETAN 19,00etatik 20,30era arte “**Zure seme-alaben sentimenduak ezagutu nahi?**”

ESKOLAKO JAIAK

Urtero bezala, ikastetxeko jaiak laster izango dira, eta ilusio handiz programaturiko diren ekintzetan elkarrekin parte hartzeko eta gozatzeko prest egongo gara.



Familien partaidetzarako egunik aproposena larunbata izaten da, eta aurten hainbat ekintza antolatzea erabaki dugu; dena dela, betiko ekintza batzuk aldezina dira: afaria eta erromeria, alegia; eta hauek mantenduko dira, horixe baitetz!

- Gurasoen partidak **Familien arteko Multikirolak** ordezkaturiko du (aita-amak, seme-alabak); hauetan denok parte hartzeko aukera izango dugu (3. mailatik aurrera) txandaka jokaturiko diren futbola, saski eta eskubaloiko partidetan.
- **Adin guztietarako jokoak familian:** zaku-lasterketak, goilarak ... Txikiekin batera zuen partaidetza espero dugu.
- **Afaria eta erromeria.**

Jaiak iristeko irrikan egongo zaretela espero dugu. Berrito ere, egun horietan etortzera eta parte hartzera animatu nahi zaituztegu. Ez ahaztu, prestaketa eta antolatze lanetan laguntzeko zuen gertutasuna eskertzeko izango dela; beraz, horrela balitz, APYMAko Batzordeko edozein kiderekin harremanetan jarri.

Zatoz

